

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 1/2016

ERABAKIA, EUSKO JAURLARITZAKO (...) ZUZENDARIAREN AURKA AURKEZTUTAKO SALAKETA ANONIMOAREN INGURUKOA.

1.- Etika Publikorako Batzorde (EPB) honen Idazkaritzaren postontzira bidalitako mezu elektronikoen bidez, "euskal herritar" anonimo batek adierazten du –izen hori baino ez da ageri bidaltzaileak bete beharreko atalean– "Eusko Jaurlaritzaren (...) Saileko (...) zuzendariaren portaera etiko, moral eta profesional onartezina salatu" nahi duela.

2.- Idazkiak zuzendari horren portaera nabarmentzen du, eta orokorrean leporatzen dio "mehatxuka eta gogorkeriaz" jarduten duela "bere mendeko langileekin, hala (...) (ea)n nola Eusko Jaurlaritzaren (...) Zuzendaritzan". Horretaz gain, egozten dio "botere absolutistaz" gobernatzen duela, "langileak beren lanpostuetatik aldatuz"; zehazki, salatzen du badaudela "ihes egin edo dimisioa eman duten teknikariak, beste destino batzuetara bidali dituzten langileak (teknikari kalifikatuak, administrariak, idazkariak..., eta gustatzen ez zaion langile oro aldatu, kanporatu edo kargutik kentzen du)".

3.- Mezu elektronikoen horretan esaten denez, halaber, "kexa asko izan da langile guztien partetik zuzendari horren jauntxo-jokaera dela eta, erabateko baiepena baitu zuzendari horrek goitik dituen politikarien aldetik".

4.- Ikuspegi orokorrago batetik idazki anonimo horretan esaten denez "enplegatu publikoek, lan-kontratupekoek eta kontratatuek, herritarrak izaki azken finean, haien kontrako errepresalien beldurrez" bizi dute egoera hori, eta garrantzitsua da "hori jakitera ematea, herritarrei ematen zaien zerbitzu publikoari nabarmen eragin baitakioke, baldin eta, barrutik, politikariak boterea absolutismoz erabiltzen badute eta barne-kontrolen beldurrik izan gabe, zoritxarrez kontrolik ez dagoelako".

5.- Ikuspegi orokor horretatik, bereari eusten dio esanez "gobernatzeko modu absolutista hauek [...] jendeak uste duena baino ohikoagoak dira". Hala ere, lerro batzuk beheko aurrekoaren kontrako dio: horrelako "egintzak, zorionez, kasu bakan batzuk baino ez" direla.

6.- Hori horrela, hauxe da EPB honek, Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.4. atalaren bigarren idatzi-zatiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, aho batez hartu duen

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1.- Etika eta Jokabide Kodea (EJK), Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartua, politikaren etika-zentzua berreskuratzeko asmoz sortu zen, bai eta herritarrek erakundeengan duten konfiantza berreskuratzeko neurri gisa ere.

Xede horiek betetzeko, Etika eta Jokabide Kodearen asmoa da identifikatzea zer jokabide eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak guztiz bat etor daitezten dokumentu horretan aurrez zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarren erakundeenganako konfiantza gutxitu ez dadin ahalegina eginez.

2.- Etika eta Jokabide Kodeak oinarritzko bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek erreferentzia parametrotzat hartu behar ditu gai eta zalantza etikoei erantzun beharra egokitzen bazaio, beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko interesa duten gainerako pertsonak halakorik helaraziz gero.

3.- Horretarako, Kodearen 16.3 atalaren lehenengo idatzi-zatian ezarritakoaren arabera, EPB bera da organo eskuduna «Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez-betetzei buruzko keak edo salaketak jasotzeko, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzeko».

II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Salaketa horretan kontuan hartu behar den lehenengo alderdiak idazkia anonimo izatearekin du zerikusia, eta egoera horrek idazkiaren onargarritasunari buruz sortzen duen zalantzarekin.

2.- 3/2014 eta 1/2015 erabakietan adierazi genuenez, printzipioz, ez dago inongo eragozpenik EPB honek salaketa anonimoak izapidetzeko onar ditzan. EJK-k ez du horri buruzko berariazko

araurik ezartzen; ez ditu baimentzen, ez eta espresuki debekatzen ere. Baina EPB honen helburu nagusia bada begiratzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunek eta parekatuek egiazki betetzen dituztela –EJKn xedatutakoaren arabera– haien jarduna zuzendu behar duten balioak, printzipioak eta jokabideak, badirudi, printzipioz, kasu egin beharko diogula edozein arrasto eta berriri, baldin eta aukera ematen badigu balio, printzipio eta jokabide horien kontrakoak izan daitezkeen jarduketa edo jokabideei arrastoa hartzeko. Eman zaigun monitorizazio-zereginerako baliagarria izan daitekeen edozer informazio baztertuz gero informatzaileak bere nortasuna ezkututzen duelako bakarrik, EJKren xede nagusia zapuztu daiteke, kode horren kontrako jokaerak zigorrik gabe geratuko lirakeelako, eta Eusko Jaurlaritzaren kargu publikodun eta parekoen prestutasunaren, integritatearen eta zintzotasunaren inguruko irudi negatiboa emango lukeelako.

3.- Hala ere, aurreko zenbakian aipatutako erabakietan adierazi genuen moduan, bi zehaztapen egin behar zaizkio oinarritzko jarraibide horri:

a) Salaketa anonimoetan, bistakoa denez, salatzaileari ezin zaio eskatu hasieran aurkeztutako informazioa osatzeko, eta, beraz, ezinbestekoa da hasierako dokumentua garbia eta zehatza izatea, eta ez oinarritzea bakarrik zehaztasunik gabeko jardueretan eta argi aipatzen ez diren eta nekez identifika daitezkeen egileei buruzko aipamen abstraktu eta lausoetan. EPB ez da fiskaltza ahalguztidun moduko bat, eta ez dago gaituta muga subjektiborik, objektiborik edo denborazkorik gabeko ikerketak egiteko Eusko Jaurlaritzako eta haren sektore publiko instrumentaleko kargu publikodunen eta parekatuen benetako edo balizko jarduera guztien egokitasun etikoaren inguruan, horien berri zuzenean izan edo zeharka, edozein bitartekoren bidez.

b) Salatzaile batek modu anonimoan jardutea erabakitzen badu, *ipso facto* uko egiten dio ondoren alegazioak aurkezteko aukerari, EPB honek bultzatutako jarduerak kontraesaneko prozedura bat sortuta ere.

4.- Kasu honetan, ezin esan salaketa anonimo horrek informazio oso zehatza ematen duenik aipatzen duen pertsona horren gaineko jardueri buruz. Argi eta garbi azaldu da salaketa noren aurka egiten den –Eusko Jaurlaritzako (...) zuzendariaren aurka–, eta ez dago zalantzarik EJK betetzea dagokiola, kargu publikoen katalogo eguneratuan baitago. Bestetik, zuzendari horren "jokabide etiko, moral eta profesional onartezina" salatzen da, baina ez da zehazten salatzailearen iritziz EJKren zer atal zehatz urratzen dituen.

5.- EJKn ugari dira kargu publikodunek beren lantaldeak osatzen dituzten langileekin izan beharreko harremanak jarraibide etikoen arabera antolatu behar dituztela dioten aurreikuspenak. Beste arau batzuek, berriz, integritatez jarduteko eskatzen die kargu publikodunei, eta "pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo pitz dezakeen ezer" ez egitea (EJKren 6.1 puntua) –eta horrek, jakina, ez ditu baztertzen hierarkikoki mendeko egoeran daudenak–. Arau horiez gain, beste agindu batzuk ere jasotzen ditu Kodeak, bereziki hauetara bideratuak:

"ideiak, proiektuak eta informazioa gainerako lankideekin, kargu bera dutenekin edo enplegatu publikoekin partekatzea, eta eginkizunak, lana, elkarrekiko leialtasun-giroan, konfiantza-giroan gauzatzea" (8.2 puntua); "babesten duten proiektuaren alde jarduteko gogo bizia zabaltzea erakundean eta hartan lan egiten dutenen artean" (9.2 puntua); "lantaldeen trinkotasuna sustatzea, elkarreragina eta jarrera proaktiboa bultzatzea haien funtzionamenduan, eta erakundeak funtzionamendu ona izan dezan, beharrezko ardua guztiak gaitasuna duten pertsonen esku uztea" (9.3 puntua); "arretaz eta begirunez hartzea erakunde bereko gainerako kargu publikodunak, enplegatu publikoak eta herritarrak" (12.1 puntua); "begirune eta arreta berezia izatea enplegatu publikoekin, batez ere beren funtzioei dagozkien arlo edo jarduerasektoreko kideekin", eta "pertsona horiei zor zaien errespetua eta begirunea erasan dezaketen jokabideak" saihestea (12.6 puntua), eta errotik saihestea "ardurapean dituzten edota erakundean lanean diharduten enplegatu publikoen aurkako jazarpenzat har daitekeen edozein neurri edo ekintza", bai eta "esplizituki zein inplizituki bereizkeriazko tratua dakarren jokaera oro" ere (12.7 puntua).

6.- Kargu publikodunak, bere agintea gauzatzean, hierarkikoki mendeko dituen pertsonetik har ditzakeen neurri diskriminatzaileei dagokienez, zehazki, hauxe ezartzen du EJK-k 12.7 puntuan: "edozein bereizkeria egoera berehala salatu ahal izango da Etika Publikorako Batzordearen aurrean, eta salaketa hori bidezkoa ala bidegabekoa den argitzeko ikerketa egingo du Batzordeak, informazio-espeditzea irekitzea objektiboki justifikatzen duten zantzuak abiapuntutzat hartuta. Albistea oinarrigabea baldin bada, gertaera horien ondorioa izango da funtsik gabe salaketa jarri duenari diziplinazko espeditzea irekitzea, legeak ezarritakoaren arabera".

7.- Dena dela, idazki anonimo horretan jaso diren akusazioetatik zehaztasun gehien dutenek – hala "botere absolutistaz" gobernatzen duela salatzeke adibidetzat baliatu direnek, nola "profesionalak beren lanpostuetatik" aldatzen dituela edo "gustatzen ez zaion langile oro aldatu, kanporatu edo kargutik kentzen" duela diotenek– ez dute ezer zehazten salaketan adierazitako administrazio-ebazpenak emateko inguruabar zehatzei buruz, halakorik eman bada, behintzat. Kontuan hartu bedi funtzio publikoaren eremuaz ari garela, eta hor, enplegatuek, hasiera batean behintzat, estatus berezia dutela, legez bermatua, zeinak zaildu egiten duen –edo, are gehiago, galarazi– aldaketa arbitrarioak eta ordenamendu juridikoaren kontrakoak egitea. Idazki anonimoak horri buruz ematen duen informazioak ez du zehaztasun nahikorik EJKren 12.7. puntuan jasotzen diren "informazio-espeditzea irekitzea objektiboki justifikatzen duten zantzuak" daudela esateko.

8.- EPB honek ez du gaitasunik ikerketa orokor eta bereizkuntzarik gabekoa hasteko kargu publikodun batek bere ardurapeko eremuetatik edozeinetan duen portaerari buruz. Izan ere, kontsulta eta salaketa zehatzak baino ezin ditzake ebatzi, halakorik egiten bazaio jakiteko ea EAEko sektore publikoko kargu publikodunen jardun zehatzak EJKn ezartzen diren jokabide-arauak betetzen dituen. Horrenbestez, ezin du gomendio zehatzik eman kasu honetan, salatzaile anonimo batek akusazio orokorrak eta zehaztugabeak egin dituelako, eta, jakina, anonimotasun horregatik beragatik ezin zaiolako eskatu salatutakoa gehiago zehazteko.

9.- Edonola ere, salaketa anonimoak aipatzen dituen gertaerak EAEko sektore publikoak laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatzeko hartutako mekanismoen esparruan aztertu eta balioets daitezkeenez, uste dugu Erabaki honen berri eman behar zaiela, bai salaketa anonimoa jarri zaion zuzendariari, bai hierarkian haren gainetik daudenei, salaketaren berri izan dezaten, eta, hala badagokie, erabaki dezaten aurretik aipatutako mekanismoren bat erabiltzea komeni den.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk aho batez hartutako

ERABAKIA:

Lehena: (...) Saileko (....) zuzendariaren aurka aurkeztutako salaketa anonimoa azter dadin onartzea.

Bigarrena: Gomendio zehatzik ez ematea, salatzaile anonimoak egindako akusazioak orokorrak eta zehaztugabeak direlako; hain zuzen ere, salatzailea anonimo izateagatik beragatik, ezin zaio salatutakoa gehiago zehazteko eskatu.

Hirugarrena: Salaketa anonimoak aipatzen dituen gertaerak EAEko sektore publikoak laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatzeko hartutako mekanismoen esparruan aztertu eta balioets daitezkeenez, uste dugu Erabaki honen berri eman behar zaiela, bai salaketa anonimoa egin zaion zuzendariari, bai hierarkian haren gainetik daudenei, salaketa horren bidez zeri buruz kexatu diren jakin dezaten, eta, hala badagokie, erabaki dezaten aurretik aipatutako mekanismoren bat erabiltzea komeni den.

Laugarrena: Erabaki hau ezin zaionez jakinarazi salaketa jarri zuen pertsonari, ez baitakigu nor den, www.euskadi.net helbidean argitaratuko da, EPB honek hartutako gainerako erabakiak bezala (Herri Administrazio eta Justizia Saila, Etika Publikorako Batzordea).



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio.
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urtarrilaren 20a